ZARAUZKO UDALA

ZERBITZUA PROZEDURA IREKI SUPERSINPLIFIKATU BIDEZ ADJUDIKATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SUPERSIMPLIFICADO
ZARAUZKO ERREKETAN ETA HEZEGUNEETAN ZABORRA BILTZEKO ZERBITZUA 2026IK210001		**SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS EN LOS ARROYOS Y LOS HUMEDALES DE ZARAUTZ** 2026IK210001
1. KONTRATUAREN XEDEA Agiri honetan azaltzen diren arauetan oinarrituta sinatuko den kontratuaren xedea da, Zarauzko erreketan eta hezeguneetan pilatzen diren hondakinak jasotzea eta behar bezala kudeatzea. **2. EGINKIZUN OROKORRAK** Kontratua behar bezala betetzeko, adjudikaziodunak ondorengo lanak bete beharko ditu: Erreketako eta hezeguneetako garbiketa urtean bitan egingo du: .Lehenengo txanda apirilean izango da. .Bigarren txanda irailean izango da (Euskal jaien ondoren) Bi garbiketa hauez gain, adjudikazioduna izango denak, Udalak horrela eskatuta, urtean gehienez hiru aldiz, errekara edo hezegunera bota duten zabor zehatz bat jasotzeko zerbitzua ere egingo du. Lanak hasteko egunak aurrez adostu beharko ditu Zarauzko Udaleko Hirigintza eta Ingurumeneko departamentuko teknikariekin Plegu hauen eranskineko planoan azaltzen diren erreka eta hezegune guztietan egingo ditu adjudikatutako lanak. Jasotako hondakinak izango dira, erreka naturalean arrotzak diren hondakinak: plastikoak (bidoiak, botilak, film plastikoa, jostailuak), egurrak (paletak, oholak, hesolak..) beira (botilak edo beste edonolakoak),		**1. OBJETO DEL CONTRATO** El objeto del contrato, que en base al presente pliego se suscriba, es la recogida y la gestión adecuada de los residuos que se acumulan en los arroyos y los humedales de Zarautz. **2. FUNCIONES GENERALES** Para cumplir correctamente el contrato, la empresa adjudicataria deberá realizar los siguientes trabajos: La limpieza de las regatas y los humedales se llevará a cabo dos veces al año: .La primera limpieza se realizará en abril .La segunda en septiembre (después de Fiesta Vasca) Además de estas dos limpiezas, quien resulte adjudicataria, a petición del Ayuntamiento, como máximo tres veces al año, realizará el servicio de recogida de algún residuo específico que haya sido arrojado al río o al humedal. Los días en que comenzarán los trabajos se acordarán previamente con el personal técnico del departamento de Urbanismo y Medio Ambiente del Ayuntamiento de Zarautz Los trabajos adjudicados se deberán realizar en todas los arroyos y los humedales que aparecen en el plano adjunto al presente pliego Los residuos a recoger serán aquellos que son extraños en una regata natural: plásticos (bidones, botellas, film plástico, juguetes), maderas (palés, tablas, estacas…), cristal

erosketetako karroak, trapuak eta oihalak, burdinak, haltzariak eta antzekoak.		(botellas o de otro tipo), carros de la compra, trapos y telas, hierros, muebles y similares.
Hondakin horiek erreketatik eta hezeguneetatik atera beharko ditu. Horretarako beharrezko baliabideak erabiliko ditu, kontuan izanda hondakin horiek pisutsuak izan daitezkeela, eta errekara jaisteko zailtasunak izan daitezkeela.		Se deberán retirar los residuos de la regata, para lo cual utilizarán todos los recursos necesarios, teniendo en cuenta que dichos residuos pueden ser pesados, y que puede haber dificultades para bajar a la regata o al humedal.
Ateratako hondakinak sailkatu eta behar bezala kudeatu beharko ditu.		Los residuos recogidos se deberán clasificar y gestionar debidamente.
Garbiketa txanda bakoitzean, txostena prestatuko du, jasotako hondakinen kopurua eta tipologia azalduz, eta lanak burutzeko egunak, orduak eta langile kopuruak zehaztuko ditu.		En cada turno de limpieza se deberá elaborar un informe, indicando la cantidad y tipología de los residuos recogidos y concretando las días, horas y cantidad de trabajadores empleados en la ejecución de los trabajos.
Zarauzko Udaleko departamentu arduraduneko teknikariekin harreman zuzena mantenduko du lanak egin bitartean ohikoak ez diren gertakizunak, lehen bait lehen, korreo elektronikoz, telefonoz edo aurrez aurre azaltzeko.		Durante la realización de los trabajos mantendrá una relación directa con el personal técnico del departamento responsable del Ayuntamiento de Zarautz para dar cuenta cuanto antes de cualquier incidencia, bien mediante correo electrónico, por teléfono o de manera presencial.